

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO



**EUSKAL AUTONOMI
ERKIDEGOKO
ENERGIA
EOLIKOAREN
LURRALDE PLAN
SEKTORIALA**

**Behin betiko
onarpena**

**EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO
ENERGIA EOLIKOAREN LURRALDE PLAN
SEKTORIALA**

BEHIN BETIKO ONARPENA

AURKEZPENA

Europako joerari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoan energiaren inguruko lurralde eta sektore plangintzaren bidez nahi da baliabide berriztagarriak ahalik eta gehien aprobetxatzea, autohornikuntza energetikoaren tasa igotzea eta energia garbiak erabiltzea; energia garbiei esker murriztu ahal izango dira atmosferara egindako isurketak, orokorrak eta espezifikoak. Plangintza horren funtsezko alderdiak 3E-205 Planean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Ildoetan jasotzen dira.

Gauzak horrela, eta alde batetik ikusita energia eolikoak dituen abantailak energi, gizarte, ekonomi eta ingurumen arloetan, eta bestetik kontuan izanda energia mota honek gaur egun duen maila, ez dago dudarik ondo baino hobeto dagoela justifikatuta parke eolikoak ezartzea.

Parke eolikoek asko lagunduko dute lurralde eta sektore plangintzan etorkizunera begira energia eta ingurumen arloetan planteatzen diren helburuak, erronkak eta desafioak erdiesten, eta baita energia eolikoaren inguruko produktu eta zerbitzuen merkatuetan aurrean dauden euskal enpresa askori teknologia eta industria arloetan garatzen. Eta horrek guztiak lanpostuak sortzen lagunduko du.

Dena den, ez dago dudarik parke eolikoek eragin nabarmena izango dutela lurraldearengan, parkeak ezartzen direneko eremu naturalengan eta ingurunearengan. Hori dela eta, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorial hau tresna baliagarria ez ezik, beharrezkoa ere bada, gidalerroak eta irizpideak finkatzeko, nola administrazioarentzat, hala partikularrentzat. Eta gidalerro eta irizpide horien arabera zehaztuko dira baliabide natural hau aprobetxatzeko gunerik egokienak; azken batean, parke eolikoentzako kokalekurik egokienak, beti ere Lurralde Antolamenduaren ondorioz indarrean dagoen ordenazioaren barruan.

Beste modu batera esanda, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren bidez, Euskadin parke eolikoak ezarri nahi dira, dagoen baliabide eolikoa ahalik eta gehien aprobetxatzeko, baina, aldi berean, ingurune kulturala eta naturala kaltetu gabe. Hori horrela moldatzeko, Planak oinarritzko irizpideak, ildoak eta arauak ematen ditu, parkeentzako kokalekuak hautatzerakoan eta ingurumen inpaktua zuzentzeko neurriak hartzerakoan ez ezik, parkeak ezartzerakoan ere gidalerro eta orientazio gisa erabiltzeko. Planak, halaber, kokaleku teorikoak edo kokaleku izan litezkeenak hartu

eta horietatik egokienak iruditu zaizkionak aukeratu ditu, energia, ekonomia eta ingurumena batera kontuan hartuta.

Horrela, bada, Autonomia Erkidegoarentzat berebiziko garrantzia du baliabide energetiko, natural, berriztagarri eta bertako hau aprobetxatzeko azpiegiturak sortzeak. Baina horretarako, babesgarriak diren hainbat interes koordinatu behar dira, ingurumena edo kultura, eta, horrez gain, lehen aipatu den legez, azpiegitura hori lurralde antolamenduaren inguruko politika oso baten barruan kokatu behar da, beste sektore plangintzak bezala; horixe agintzen du, hain zuzen ere, Lurralde Antolamendurako Euskadiko Legeak.

Dokumentu honetan aurkezten den Lurralde Plan Sektorialak erraztu egingo du, dudarik gabe, interesen koordinazio horren barruan, batetik parke eolikoak ezartzea eta, bestetik, lurralde antolamenduan integratzea helburu energetikoak (175MW, 2005ean) lortzeko behar den azpiegitura, gure Autonomia Erkidegokoak bertakoak diren kultur eta ingurumen elementuak errespetatuz.

Eta horixe da, besterik gabe, Planaren helburu nagusia.

Josu Jon Imaz San Miguel

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA